



DEBAko UDALA

AITA MARI ONTZIARI MEDITERRANEOAN BEHAKETA LANAK EGIN ETA ITSASOAN GALDUTA DAUDENAK JASOTZEN DEBEKATZEN DION MERKATARITZA ITSASKETARAKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO EBAZPENA UKATZEKO ADIERAZPEN INSITUZIONALA

Urtarrilak 18an Aita Mari Itsasontziarentzat eginiko despatxo eskaeraren erantzuna jaso genuen. Pasaiaiko itsas kapitaintzak, DGMMaren instrukzioak jarraituz uko egin zion Mediterraneoara salbamendu lanak egitera joateko eskatutako despatxoari, aurrez Bartzelonako kapitaintzak Open Arms itsasontziarekin egin bezala.

Migrazioen nazioarteko erakundeak (IOM) jaurtitako zifra ofizialen arabera 14.454 heriotz izan dira Mediterraneoan 2015etik. Adituek diotenez itsasoan berreskuratutako gorpu bakoitzeko, bi galtzen dira.

Urtarrilak 19an, Mediterraneoan izandako bi hondoratzek utzitako 170 heriotzen berri izan ondoren, **Filippo Grandi, errefuxiatuentzat ONUren komisario handiak**, hurrengo esan zuen; "Ezin beste aldera begiratu, europako ateetan hiltzen ari den pertsona guzti huen aurrean. Ezin da esfortzurik eskatimatu itsasoan arriskuan dauden pertsonak bizirik ateratzeko.

Matteo de Bellis, migrazioari buruzko Nazioarteko Amnistiako ikertzaileak esan du, "Lotsagarria da erreskate itsasontzien gelditzearen ikuskizuna, hainbeste gizon, emakume eta haur itsasoan preso asteetan zehar amaiera gabe, eta bitartean politikoek bihozgabe handiena zein izango lehiatzen dute, lehorreratze edo edozein laguntza ukatzen, hau ez da sekula gehiago errepikatu behar."

AITA MARI-ren ekimena zibila da, ehunka partikularren, tokiko, probintzia eta estatuko entitate publiko naiz pribatuen elkartasunean oinarrituta, bizi eskubidea beste edozeren gainetik dagoenaren uste osoarekin. Sorospen ezari eta giza laguntza aktiboaren erantzuna ematera behartuta dauden botere publikoen ukoaren ondorioz sortutako erantzuna da.

Sorospena eskaintzera eta sorospen misio hauek koordinatzera behartuta dauden herrialde hauek beraien bete beharrekin arduratsu ez izatea, ezin da aitzakia izan **AITA MARI** portuan geldirik egotera behartzeko, erreskate misioa bera estatuen ekintza ezaren jarreraren erantzuna baita.

Lau urte eta gero, emaitzak ikusita, Europar Batasunak Mediterraneoako itsas ibilbidetan hildako pertsona kopurua murrizteko hartutako neurriak ez dira nahikoak izan.



DEBAko UDALA

Guzti hau kontutan izanda, **Salvamento Marítimo Humanitariok** hurrengoa dio:

1. Estatuaren bete beharra da itsasoan galdutakoei laguntza eskeintzea eta beraien eskubideak bermatzea.
2. Europar Batasunak, lehen bait lehen kudeaketa egoki bat diseinatu behar du, itsasoan galduta dauden pertsonen eskubideak bermatzeko. Porturatzea modu egokian eta aurreikus daitekeen neurrian portu ziur baten egin dadin.
3. Egoerak berdin jarraitzen duen bitartean eta bertaratutakoen baliabideak nahiko ez diren bitartean, Europar Batasuneko estatuak bermatu beharra dute ahal den koordinazio hoberena giza erakundeekin, itsasoan laguntza emateko.
4. **AITA MARI** erreskate lanak burutzeko legezko eta beharrezko ziurtagiriak dituen itsasontzia da eta, agintari eskudunak beharrezko laguntza eskeini behar digute ekintza hauek beharrezko den eraginkortasun eta ziurtsunez eramateko, bai tripulazio bai erreskatatutako jendearekiko.

Guzti hau kontutan izanda, udaletxe honi eskatzen dizugu ebazpen hau ukatzea, **AITA MARI-ri** Mediterraneoan behaketa lanak egin eta itsasoan galduta daudenak jasotzea debekatzen diona.

Gaur egun, gobernuz kanpoko erakundeen itsasontziak dira, Afrikatik atera eta itsasoan galduta daudenei aukera bat eman diezaieketen bakarrak, eta hauen berehalako hedapena, giza larrialdi bat da.

Deban, 2019ko urtarrilaren 31n